2017ko irailetik 2018ko irailera irakurri eta landu ditudan aldizkariak dituzue hemen. Batez ere, bi helburuekin irakurtzen ditut: alde batetik, ingeles edo/eta frantses aldizkarien kasuan, bi hizkuntza horiekin aspalditik daukadan erronkari eusten jarraitzea (frantsesa eta ingelesa: atzerriko bi hizkuntza, zeinak, neurri handiagoan edo txikiagoan, arrakasta handiagoz edo txikiagoz, neure bizitza osoan lagun izan ditudan); eta, beste alde batetik, zientziarekin eta kulturarekin oro har zerikusia duten gaiei buruz irakurtzeak ematen didan plazera eta nire berezko jakin-mina asetzea, eta Elhuyar aldizkariaren kasuan, bide batez, gure herriko errealitate zientifikora hurbiltzea… euskararen










eskutik.










